

**GAIA: ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO NEURRI FINANTZARIOEI ERAGITEN DIEN DIRU-LAGUNTZEN LEGE OROKORRA APLIKATZEKO JARRAIBIDEA**

Gutun honen bidez, eta etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzean zure partaidetza aktiboa kontuan hartuz, jakinarazi nahi dizugu **2017ko maiatzaren 24tik indarrean sartu dela etxebizitza birgaitzeko neurri finantzarioei eragiten dien Diru-laguntzen Lege Orokorra aplikatzeko jarraibidea.**

#### **1.- XEDEA:**

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa, araututako zenbait alderdi zehaztea etxebizitzaren birgaitzeko neurri finantzarioen onuradunei eragiten dietenak.

#### **2.- APLIKAZIO ESPARRUA:**

**Birgaitzerako diru-laguntzen eskaera osatzen dituzten pertsonen eta jabeen erkidegoei aplikatuko zaie, 2006ko abenduaren 29ko Aginduan araututakoak.**

#### **3.- BETEBEHARRAK:**

Birgaitze jarduketaren **babespeko aurrekontua 50.000 €tik gorakoa bada (BEZa kanpo) gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu beharko dira.** Jasotako eskaintzen artean bat **aukeratzeko irizpideak justifikatu beharko dira**, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean. Eskararekin batera aurkeztuko dira bai hiru eskaintzat eta baita bat aukeratzeko irizpideen txostena.

#### **4.- ORDAINKETAK JUSTIFIKATZEA:**

Diru-laguntzaren titularra **egindako ordainketen agiriak aurkeztu** beharko ditu. Banku-transferentzien kasuan jasota geratu behar du:

- **Ordainketaren igorlea:** erkidegoen obretan jabeen erkidegoen izena izango da.
- **Onuraduna:** orokorrean enpresaren izena.
- Ordainketaren **data**.
- **Kontzeptua:** ordaintzen ari zaren **fakturaren zenbakia**.

Ez da eskudirutan egindako ordainketarik onartuko.

Laguntza ordaindu eta hurrengo hilabetean iraungitzen diren ordainketa atzeratuak honako hauen bidez dokumentatzen badira bakarrik hartuko dira justifikatuztat:

- Txeke pertsonala, bere deskontua banku laburpenean justifikatuz.
- Banku-txekea, hornitzaileak emandako jaso izanaren agiria gaineratuz, eta agiri horretan ordaintzeko modu gisa onartuz.
- Kanbio-letra onartua.
- Kreditu-gutun atzeraezina, berretsita, edo dokumentu-kreditu atzeraezina.

#### **5.- AGIRIAK GORDETZEA:**

Etxebizitzaren birgaitzeko laguntzen pertsona eta erkidego onuradunek **lanen eta egindako ordainketen egiaztagiriak gorde beharko dituzte ordainketak justifikatzeko epea bete eta hurrengo 4 urteetan.**

**Inguratzaile termikoa hobetzeko diru-laguntza zuzena jaso** duten jabeen erkidegoen kasuan **agiriak gordetzeko epea 10 urtetakoa izango da.**

Argibideren bat behar izanez gero, **943 344 160** zenbakira hots egin, posta elektronikoz idatzi [xsanchez@oarsoaldea.eus](mailto:xsanchez@oarsoaldea.eus) helbidera edo [www.oarsoaldea.eus](http://www.oarsoaldea.eus) [web orria bisitatu](#).

Besterik gabe,  
Agur bero bat,

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Xabier Sánchez', is centered on the page.

Xabier Sánchez  
Hiri-berriztapen eta Mugikortasun Sailaren Zuzendaria

**Oarsoaldea**